



GEHITUK, Euskal Herriko gay, lesbiana, transexual eta bisexualen Elkarteak, Eusko Jaurlaritzak irabazi-asmorik gabeko erakunde izendaturikoak, maiatzaren 17an ospatzen den homofobia eta transfobiaren aurkako egunaren kariaz, **BERE HOMOFOBIAZ NABARMENDU DEN PERTSONA EDO ERAKUNDEAri 2008ko GEHITU LATORRIZKO SARIA**

FRANTZIAKO GOBERNUAri

ematea erabaki du, ondoko egitateotan oinarriturik:

- 2008ko maiatzean zabaldu da frantses gizonezko batek bere herritartasuna galdu duela holandar gizonezko batekin ezkontzeagatik. Holakorik ez zen gertatuko sexu desberdineko pertsonen arteko ezontza izanez gero, orduan frantses-holandar herritartasun bikoitza emango baitzitzaion. Europa sozial eta eskubidezko honetan jasanezina da gobernu batek herritartasuna pertsona bati kentzea bere orientazio sexuala dela eta. Entzun ditugu egoera hori zuzendu nahian Sarkozy Presidenteak esandako hitzak, baina ezin zurituzkoa iruditzen zaigu iritzi publikoa gertaeraz jabetu artean Frantziako Estatuak ez erreakzionatzea.
- Gainera, Frantziako Gobernu berak "ARDOISE" fitxategia abiaraztea proposatu zuen, poliziaren datu base bat non informazio pertsonala bildu behar zen, hala nola: "homosexuala", "prostituzio erabiltzailea"... Neurri hori ez zen gauzatu gizartearen presioengatik, baina modu horretara planteatze hutsa aski larria dela iruditzen zaigu.

Gehituk jakin badaki beste herrialde batzuetan lesbiana, gai eta transexualen jazarpena hain larria dela ezen heriotza zigorra ere ekar dezakeen. Baina egia da, orobat, balio demokratikoen alorrean abangoardia den Estatu bat, Frantziako Iraultzaren sehaska, ezin dela bere herritarrekiko bereizkeria instituzionaleko jarrera mota hauetan erori.

Sari emate hau, berriz, Gehituk Iparraldeko lesbiana, gay eta transexualen taldeekin duen lankidetzaren harreman estuetan oinarriturik dago. Gainera, badira mugaren bi aldeetako herritarrek osaturiko bikote homosexual ugari eta, bestalde, gipuzkoar bikote asko eskualde horretan bizi dira. Beldur gara halako legeriek pertsona horiek guztiak beren eskubideen urratze egoera posiblean ez ote dituzten jarriko.

Donostia, 2008ko maiatzaren 16a